

LIBURUAK

Izenburua: 'Oporretako koadernoak'. **Egilea:** Hainbaten artean. **Marrazkiak:** Belen Moreno. **Edukia:** Askotariko ariketak, hainbat ataletan banatuta: euskara, ingelesa, plastika, trebatzen, matematika eta ingurunea. **Argitaletxea:** Ikaselkar.



kolan lantzen diren gaiak dira, baina ariketa itxura baino jolas itxura handiagoa dute jarduera hauek. Beraz, koadernoetan proposatzen diren ariketak jolasak dira, eta, jolas horien bidez, matematika, euskara, ingurunea eta aurrez aipaturiko arloak lantzen dira.

Zenbat ariketa daude liburu bakoitzean?

Katti Olaizola


IKASELKAR-EKO EDITOREA

«Ariketa itxura baino jolas itxura handiagoa dute jarduerak»

U da da, oporretan zaudete, baina komeni da tarteka ikastolan ikasitakoari erreparatu txiki bat ematea; modu jostagarrian eta atseginean bada, askoz hobea. Hainbat irakasleren artean, ariketa sorta dibertigarri bat prestatu, eta *Oporretako koadernoak* liburuetan bildu dituzte. Lehen Hezkuntzako ikasleentzako liburuak dira, eta maila bakoitzak bere koadernotxo du. Askotariko jarduerak daude, eta, tarteka, baita eskulana eta errezetak egiteko hainbat proposamen ere. Gozatu udaz!

Zein helbururekin argitaratzen dituzue koaderno hauek?

Urtero-urtero ez ditugu liburu berriak ateratzen. Orain dela pare bat urte berriitu genituen liburuxkak, eta, beraz, iazko berak dira koaderno hauek. Urte barruan ikastolan ikasi dituzten edukiak lantzea da oporretarako prestatu ditugun koaderno hauen helburu nagusia. Hala, ikastolan ikasi dutena ez ahazteko edo erreparatzeko ariketak biltzen dira koadernoetan.



Maila bakoitzak bere koaderno du, ezta?

Bai, hala da. Koadernoak Lehen Hezkuntzako mailen arabera sailkatu ditugu, eta, beraz, ikas-maila bakoitzak bere koaderno du. Lehen koadernoko ariketak errazagoak dira, eta ondorengoak, zailagoak. Azken batean, eskolan ikasten duten edukiarekin erabat loturik daude koaderno horiek. Beraz, ariketen zailtasuna progresiboa da.

Zein jarduera mota daude?

Ariketekin hainbat arlo lantzen dira, eta, beraz, koadernoan agertzen diren jarduerak hainbat ataletan banatuak daude: euskara, ingelesa, matematika, ingurunea, jolasean, plastika eta trebatzen. Lehen lau atalak eskolan lantzen diren edukiarekin loturik daude; azken hiruretan agertzen diren ariketak, berriz, jolasteko edota denbora-pasarako jarduerak dira gehiago: marraztu marrazkiren bat, egin eskulana bat, irudiak kalkatu, erreze-ta errazen bat egin, ezberdintasunak aurkitu, margotu marrazkiak, bi-kiak bilatu, irudiak ordenan jarri, labirintoa...

Beste ariketak, berriz, denborapasan liburuetan agertzen diren jardueren antzekoak dira, baina guztiak euskararekin, matematikarekin, ingelesarekin edota ingurunearekin lotuak daude. Koadernoan agertzen diren ariketak dira, besteak beste: hizki zopak, gurutze-gramak, esaldi zuzenak egin edo esaldiak osatu, irudia margotzeko matematikako eragiketak egin, hitza osatzeko falta zaizkion hizkiak idatzi... Azken batean, es-

Lehen mailetako liburuak 70 orrialde inguru dituzte, baina azken mailetakoak lodikoteagoak dira. Orrialde bakoitzean ariketa bana edo bina daude; beraz, ariketa mordoxka daude. Honenbestez, uda entretenigarri bat pasatzeko adina jarduera dituzte. Ariketa pila egon arren, baina, ez dauzkate denak kolpetik egin beharrik; gogoko dituztenak edo interesgarrienak egin ditzakete, adibidez.

Jardueraz beteriko liburuak izanagatik, eskolako ariketak baino erakargarriagoak izango dira, ezta?

Udan gaude, oporrak dira, eta liburuan proposatzen diren ariketek ikastolan ikasitako erreparatzeko balio badute ere, ikastolako liburuetan baino arinago eta erakargarriago aurkezten dira. Diseinu aldetik, alaiagoak eta biziagoak dira, eta ariketak jolas moduan planteatuak daude; beraz, denbora pasatzeko koadernoak direla esan daiteke. Gainera, ariketen artean bada eskulana eta errezetak ere.

Arrakasta dute koadernoek?

Bai, nahiko arrakastatsua da. Ikastolan ikasitakoa udan lantzen jarraitzea nahi dute gurasoek, eta, batzuetan, irakasleek ere gomendatzen diete haur batzuei hainbat ariketa egitea. Ikastolan ikasitakoa modu atsegina batean lantzeko aukera ematen dutenez koadernoek, arrakasta dute, bai.